

Maialen Agirregomezkorta, eskubaloï-jokalaria:

“Taldekideen esperientziak lasaitasuna ematen dit”

Bizitza erdia eskubaloïari eskaini dio Maialen Agirregomezkortak dagoeneko, 9 urterekin hasi baitzen Anaitasuna Ikastolan jokatzen eta egun 18 urte ditu. Irailetik aurrera Erizaintza ikasteari ekiteaz gain, Etxebarriko Kukullaga Eskubaloï Taldeko ohorezko mailan bere ibilbidea jorratzen hasi da.

- Nola heldu zara Etxebarriko eskubaloï taldera?

Errotabarrin ez dago senior talderik eta eskubaloïan denok elkar ezagutzen dugunez, bertako entrenatzaileak deitu zidan.

- Zenbat denboraldirako kontratua duzu?

Momentuz, denboraldi honetarako deitu didate. Hortik aurrera... ikusiko da! Erizaintzako nire lehen urtea da eta ez genekien kontua nola joango zen.

- Lau hilabete daramatzazu Kukullagan jokatzen. Moldatu zara jadanik jokalaria eta entrenatzaile berrieekin?

Egia esan, hasieran oso arraroa egin zitzaidan. Eskubaloïan jokatzen hasi nintzenetik taldekide berberak izan ditut, eurekin joan bainaz mailaz maila igotzen, eta nire adinekoen kontra jokatu izan dut beti. Bat-batean 30 urteko jendea topatu dut nire inguruan, kanpotarrak, sekulako esperientzia duten jo-

kalariak... Entrenatzaileak ere sekulako esperientzia du, joko olinpikoetan egondakoa baita. Denborarekin, euren esperientziak lasaitasuna eman dit eta orain oso gustura nago.

- Iraila gogorra izan zenuen, beraz?

Egia esan, denboraldiaurrea abuztuan izan zen eta bai, arraro samarra izan zen. Ez nekien zer espero zuten nitaz, ezta nik zer espero nezakeen eurez.

- Maila fisikoan ere aldaketa igartzen da?

Bai, entrenamenduetan indarra asko lantzen da. Gimnasioan jo eta ke nabil orain! **- Asko entrenatzen duzue?**

Astelehenetik ostiralera bi ordu t'erdì egunero eta larunbatetan partiduak izaten ditugu.

- Denbora asko kentzen dizu?

Bai, horregatik oso garrantzitsua da denbora antolatzen jakitea. Gauza guztientzako tartetxoa atera deza kezku zure bizitza ondo antolatzen baduzu, lagunekin egoteko, esaterako.

- Etorkizunean eskubaloïa ogibide bihurtu nahiko zenuke?

Dena ondo badoa jarraitzeko asmoa dut eskubaloïarekin eta baita ikasketekin ere, noski. Profesionalki aritzea gustatuko litzaidake, baina ikusiko da!



- Zer nolako egoeran dago nesken eskubaloïa?

Eskubaloïa berez nahiko diskriminatuta dago, eta are gehiago nesken eskubaloïa: Albiste izateko txapelketaren bat irabazi behar dugu. Neskek lanean dihardugu eta ez da gutaz hitz egiten.

- Zergatik izan du Ermuan horrenbeste arrakasta eskubaloïak?

Ez dakit, Ermua taldea oso ona zen eta lagun asko joaten zen eurak jokatzen ikustera. Zaletasun hori ikustek harrapatu egiten zaitu eta umeek erreferentzia bezala hartzen dute. Gainera Matxalen bezalako kirolariak, profesional bezala aritzen direnak, erreferente dira.

- Nola baloratzen duzu Errotabarri Eskubaloï Taldearen ibilbidea?

Gauza asko lortu dira, entrenatzaileak oso gustura daude eta lan egokia egiten ari da. Gainera harrobi ona



dago: taldeak zeresan handia emango duela uste dut.

- Datorren urtean senior taldea osatzeko asmoa dago. Errotabarrira bueltatuko zinateke?

Entrenatzaileak gauza bera galdetu dit. Beste maila batean nago orain, beste intensitate batean egiten dugu lana eta oso esperientzia polita bizitzen ari naiz. Euskal Herritik kanpo jokatzen dut orain, Kanariar irlan jokatzen genuen duela gutxi, Elx-en, Saguntan, Leonen... Leku batetik bestera nabil!

Dorleta Vidal



CITROËN
AUTOS AMEDI
Zearreko buelta eraikina 3, 18 pab.
Tel. eta Faxe. 943 17 04 14

solozabal
tabakoak



torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33



DULCE BEBÉ PEQUE'S
0 eta 4 urte bitarteko umeentzako moda eta puerikultura
Zubiaurre 30 · ERMUA
943 170 005